

## Ikastola Lagunak: I. Ekintza soziala

2019ko udazkenean eman ziren lehen urratsak IKASTOLA LAGUNAK egitasmoa sortzeko, nahiz eta COVID-a dela-eta, 2020ko urriaren 8an onartu zen taldea sortzea.

Ikastoletan eta Ikastolen Elkartean, aktiboki parte hartu duten eta ikastola eredu partekatzen ez ezik beraien ikuspuntutik ekarpena egiteko prest dauden ikastola kideen bilgunea da IKASTOLA LAGUNAK.



Ikastola  
Lagunak  
UDARREGI IKASTOLA  
USURBIL

Taldearen xedea da Ikastola eredu ezagutuz, etengabe gozatu, barneratu, zabaldu, garatzen laguntdu, partekatu, iritzia eman eta elkarrekin hausnartu eta bere kasuan ekarpena egiteko eta aberasteko egitekoak izango ditu, batez ere ikastola ereduaren ezaugarri historiko eta dimentsio sozialean sakonduz.

Bestalde, Euskal Herriko 16 ikastoletan dagoeneko IKASTOLA LAGUNAK taldeak eratu dira, eta beste 5/6 ikastoletan sortzeko interesa agertu dute.

Egitasmoa indartzen eta gorpuzten ari denez, aurten **maiatzaren 23an, Arrasaten**, I. EKINTZA SOZIALA antolatu dugu. [Ikus egitaraua.](#)

PARTAIDETZA da Ikastola ereduaren ezaugarrietako bat eta IKASTOLA LAGUNAK egitasmoa partaidetza horretan oinarritzen denez, Ekintza Sozialaren barruan mahainguru bat antolatu dugu "Gaur eta biharko partaidetza soziala". Bertan izango dira gaiari buruzko erreferentziako diren adituak: Iñigo Iñurrategi, Unai del Burgo eta Itzea Urkizu.

Ekintza irekia da, eta interes duen edonor gonbidatua dago.


## Maiatzaren 21eko lanuztea eta mobilizazioa

**Maiatzaren 21ean, osteguna**, ikastolako langileok lanuztea egingo dugu **15:30etik** aurrera, Hezkuntza Sailaren jarreraren aurrean gure desadostasuna adierazi eta gure aldarrikapenak ikusgarri egiteko.

Lanuztearekin batera, herrian zehar kotxe karabana antolatuko dugu, hezkuntza komunitatearen egoera eta beharrak kalera ateratzeko asmoz.

Lanuzteak irauten duen bitartean, ohiko ikastolako jarduera ezingo da bermatu. Lanuzteetan ez da zerbitzu minimorik eskaintzen.

Eskerrik asko zuen ulermenagatik eta babesagatik.



## Ikastola-Eguna

Aurten, **Ikastola-Eguna ekainaren 6an** ospatuko dugu eta egun horretako bazkaria antolatzen hasiak gara (500 lagunentzat izango da, gehienez).

**Bazkarirako eta ondorengo festarako txartelak eskuratzeko salgai izango dituzue:**

- Ikastolako idazkaritzan maiatzaren **27tik 29ra, 8:00-13:00 bitarte**.

- Agerialdeko jolastokian maiatzaren **19, 22, 26 eta 29an 16:30-17:00 bitarte**.

Hurbilago Ostalaritza Taldearen eskutik jarritako menua:

**Ikasleentzat:**

- Makarroiak tomatearekin, oilaskoa, izozkia, ogia eta ura: **11 €**

**Helduentzat:**

- Entsalada, oilaskoa, tarta, ogia, sagardoa/ardoa/ura, kafea eta pattarra: **17 €**

\*Alergiaren bat izanez gero, txartela erosterako garaian, bertan jakinarazi.

\*LH 1etik aurrerako ikasleek beraien taldearekin eseriko dira, baina norbaitek hala nahi ez badu, tiketa erosterakoan adierazi behar du.

\*Taldea bat osatzen duten pertsonen kopuruaren berri eman ahal izango da, elkarrekin eseri ahal izateko, frontoian bertan 12:00ak arte. Ordu horren ondoren iristen direnek ez dute bermatuta izango elkarrekin eseri ahal izatea.

Bazkal ondoren ikasleen musika emanaldiak izango ditugu arratsaldea girotzeko.



## Pantaila eta ordenagailuen antolaketarako lantaldea

Artezkaritza Kontseilua hurrengo urteetarako pantailen eta ordenagailuen erabileraren antolaketa berrikusten ari da. Teknologia hezkuntzaren parte garrantzitsua da, baina badakigu etxean eta ikastolan egiten den erabilerak elkarri eragiten diotela.



Azken urteotan, ikasleen behar pedagogikoak, segurtasun digitala, adinaren araberako erabilera eta familiek dituzuen kezka kontuan hartuta, hausnarketa sakon bat abiatu nahi dugu. Horretarako, bide hau elkarrekin adostu eta hobetzeko lan-talde bat osatzea dugu helburu.

Lantaldean parte hartzeko [galdetegi hau](#) bete.

## Arratsaldeko zaintza ekainean

Ekainaren 1etik 19ra eskolak goizez soilik izango dira, 9:00etatik 12:30etara. Horregatik, arratsaldeko zaintza zerbitzua (14:30etik 16:30era) antolatzen ari gara. Zerbitzuak aurrera egin ahal izateko gutxieneko taldea osatu beharko da. Zerbitzuaren kostua **93,75 €** izango da gehienez, gutxieneko kopurua osatuz gero. Izena ematen duten haurren kopurua zenbat eta handiagoa izan, prezioa ere jeitsi egingo da.



Horretarako, mesedez [galdetegi hau](#) bete, epea **GAUR** amaitzen da.


## Familiak eta hizkuntzen atxikimendua

Ikastolen Elkartearen eskutik "Familiak eragile hizkuntzen erabileran" sortako bigarren hitzaldia duzue segidakoa.

Kike Amonarrizek **familiari euskara sendotzeko arrazoiak eta bideak** aipatu zituen hitzaldi labur honetan.

Udarregiko webgunean aurki dezakezue; [hemen](#).

Baliagarri izan dakizuela!



## Eskola Kirola 2026-27

Jarraian, datorren **2026-2027 ikasturterako Eskola Kiroleko** izen-emateen inguruko informazio garrantzitsua helarazten dizuegu:

**1. Izen-ematea: maiatzaren 14tik 24ra** bitartean egongo da zabalik.



- **Zirimara Familiaran (0-6 urte), Zirimara (6-12 urte) eta Esku Pilota:** [galdetegi hau](#) betez egingo da. Eskaintzaren inguruan informazio gehiago [hemen](#) ikus dezakezu.
- **Futbola, Eskubaloia eta Boleibola:** DBH 1 eta 2ko mailen kasuan, **kluben bitartez** egin beharko da zuzenean, eta ez ikastolatik.

**2. Bekak (Zirimara):** 2025-2026 ikasturtean Eusko Jaurlaritzaren beka jaso duten familiek **ez dute kuotarik ordaindu beharko Zirimaran**. Hori balioztatzeko, izen-ematearekin batera **Eusko Jaurlaritzako beka agiria atxikitzea** ezinbestekoa izango da.

[Ekintzak, egutegi eta ordutegiak](#)

## **HAUR HEZKUNTZA**

### Baso eskolarako jantziak

Maiatzeko erreziboekin batera, baso-eskolako jantzien erabileragatik **5 €** kobratuko direla jakinarazten da.



### EUSFERA, unibertso euskaldunagoa gure haurrentzat

*Eusfera* gure hauren ingurua, unibertsoa, euskaldunagoa izatea nahi duten familientzako ekimen berria da. *Taupa euskaltzaleen elkarteak* antolatu du eta maiatzaren 7-17 bitartean izango da.

Baliabide eta tresna askotarikoak eskaintzen dituzte jada norabide horretan dabiltzan familientzat; horretan hasi nahi duten familientzat, berriz, abiapuntua.



Euskaraz jakin ala ez, 0-12 urte bitarteko haurren gurasoei (edo guraso rola betetzen duten helduei) dago zuzendua. Gurasoekin elkarlanean, gure etxeko haur eta gaztetxoan atmosferan euskarak gero eta presentzia handiagoa izatea da helburua. Etxekoekin gauzatzeko moduko proposamenak, MISIOAK, proposatzen dituzte ["gurasoen txokoa"](#) atalean.

## LEHEN HEZKUNTZA

### Baso eskolarako jantziak

LH1., LH2. eta LH3. mailako ikasleei, maiatzeko erreziboekin batera, baso-eskolako jantzien erabileragatik **5€** kobratuko zaizkiela jakinarazten da.



### Ikastola eguneko bazkariaren antolaketa

Ikastola eguneko bazkaria antolatzeko lehenengo bilera egin zen pasa den astelehenean LH5 eta LH6ko gurasoekin, baina lantalde askotan arduradunak osatzea falta da oraindik:



- TXARTELAK lantaldea (LH5eko arduradun bat eta LH6ko arduradun bat)
- OSTALARIEKIN KOORDINAZIO lantaldea (LH5eko arduradun bat eta LH6ko arduradun bat)
- ESKAERAK lantaldea (LH5eko arduradun bat eta LH6ko arduradun bat)
- KROKISA lantaldea (LH5eko arduradun bat eta LH6ko arduradun bat)
- ZERBITZARIAK lantaldea (LH5eko arduradun bat )
- KAFEA lantaldea (LH5eko arduradun bat )

Oraindik lantaldereen batean izena eman ez baduzu eta arduradun lanetan aritzeko prest bazaude, tutoreekin jarri harremanetan. Animatu!

## LH1koen irteera

Datorren astean, eguraldiak laguntzen badu, Zarautzera egun osoko irteera egingo dugu LH1kook.

Trenez joateko asmoa dugunez MUGI txartela eramatea ezinbestekoa izango da. Haurraren txartelik ez badaukazue pertsonalizatu gabea erosi omen liteke ordainketarako.



Zuen seme-alabak ohar bat eramango du etxera eguna zehaztuz. Eskola ordutegia errespetatuko da (9:00-16:30).

## LH6. mailako familientzat oharra

Datorren ikasturtean DBH 1. mailan egongo den ikasle bakoitzak Chromebook bat erosi behar du. Anai-arreba zaharrago baten chromebooka baldin baduzue berrerabili dezakezue, baina Google lizentzia ordaindu beharko da eta, kontutan izan, bermea 4 urtekoa izaten dela eta amaituta izango dutela. Berrerabili nahi den gailuak ikastolak eskaintzen dituen chromebook-aren ezaugarri berdinak izan beharko ditu.



Erosketa online egin beharko duzue Xenon-ek horretarako prestatu duen webgunean. Erosketa prozesuaren azalpen osoa [hemen](#) duzue. Ikastetxearen kodea **UI2605** da. **Eskaera egiteko azken eguna maiatzaren 31 da.** Zalantzarik baduzue, jar zaitezte ikastolarekin harremanetan eta lagunduko dizuegu.

## EUSFERA, unibertso euskaldunagoa gure haurrentzat

Eusfera gure haurren ingurua, unibertsoa, euskaldunagoa izatea nahi duten familientzako ekimen berria da. Taupa euskaltzaleen elkarteak antolatu du eta maiatzaren 7-17 bitartean izango da. Baliabide eta tresna askotarikoak eskaintzen dituzte jada norabide horretan dabiltzan familientzat; horretan hasi nahi duten familientzat, berriz, abiapuntua.



Euskaraz jakin ala ez, 0-12 urte bitarteko haurren gurasoei (edo guraso rola betetzen duten helduei) dago zuzendua. Gurasoekin elkarlanean, gure etxeko haur eta gaztetxoan atmosferan euskarak gero eta presentzia handiagoa izatea da helburua. Etxekoekin gauzatzeko moduko proposamenak, MISIOAK, proposatzen dituzte ["gurasoen txokoa"](#) atalean.

# BIGARREN HEZKUNTZA

## Irteeraren kobrantza

DBH 2. mailako ikasleek Lekarozera egindako irteeraren 2. eta azken zatiaren kobrantza hurrengo **astehenean**, maiatzak 18, egingo da. Zenbatekoa **45,40 €** da.

